

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

HAUR HEZKUNTZA:
LANTZEN AL DIRA EMOZIOAK EGUNGO ESKOLETAN?

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Aspe Beobide, Nerea.

TUTOREA: Antonio-Agirre, Iratxe.

2021-2022

c) 3. ERANSKINA. DEFENTSARAKO BAIMENA



GrALaren ZUZENDARIAREN BAIMENA

HURA DEFENDATU AHAL IZATEKO

Jauna/andrea: IRATXE ANTONIO AGIRRE IFZ 72735761D

Izenburu hau daraman GrALaren zuzendaria naiz: **HAUR HEZKUNTZA:**
LANTZEN AL DIRA EMOZIOAK EGUNGO ESKOLETAN?

Ikasle jaun/andre honek egina: NEREA ASPE BEOBIDE IFZ 44690427R

Baimentzen dut aipatutako GrAL horren defentsa, behar diren baldintzak betetzen baititu.

VITORIA-GASTEIZ(e)n, 2022ko EKAINAREN 15(e)an

GrALaren ZUZENDARIA

Firmado por IRATXE
ANTONIO AGIRRE -
72735761D el día
15/06/2022 con un
certificado emitido por

Sin.: IRATXE ANTONIO AGIRRE

D) 4. ERANSKINA. ZINTZOTASUN AKADEMIKOAREN ADIERAZPENA



ZINTZOTASUN AKADEMIKOAREN ADIERAZPENA

HAUR HEZKUNTZA: LANZEN AL DIRA ENOZIOAK EGUNGO
ESKOLETAN? izenburua duen GrAla nik egin dela adierazten dut. Erabili ditudan

iturriak adieraziz plagioa ekiditzea nire ardura dela jakinaren gainean nagoela adierazten dut. Plagio forma guztiek propietate intelektualaren urraketa akademikoa suposatzen dutela jakinaren gainean nago, hala nola: beste pertsona baten lana norberarena gisa aurkeztea, edo iturri inprimatu, elektronikoa edo ikus-entzunezkoak erabiltzea edo garatzea egilea edo iturria aipatu gabe.

Plagioa eginez, gradu amaierako zuzendariaren onespena ez jasotzeak suposatuko duela jakinaren gainean nago.

STUA. 

Izen eta abizenak NEREA ASPE BEOBIDE.

Gasteizen, 2022ko exaina ren 15 ean

Laburpena

Lan honen helburu nagusia, egungo eskoletan Haur Hezkuntzako etapan zehar, egiten den emozioen lanketa aztertzea izan da. Helburu nagusia hori izanik eta jasotako datuak abiapuntu hartuta, emaitzak aztertzeko beste hainbat alderdiri ere erreparatu zaie; hala nola, eskola bakoitzak dituen baliabideei, irakasleen irakaskuntza estiloari, esku-hartzeari, irakasleen formakuntzari eta eskola zein familiaren arteko elkarlanari. Ikerketan, 33 irakaslek parte hartu dute, sexu, adin eta eskola mota desberdinetakoak izateaz gain, irakaskuntza esperientzia eta hezkuntza ziklo desberdinetan ere lan egiten dute. Parte-hartu duten eskola guztiak Arabakoak izan dira. Jasotako datuek hurrengo aditzera eman dute: irakasleriaren artean, (1) gizonezkoek emakumeekin alderatuta konpetentzia emozionalen ezagutza murriztagoak dituzte; (2) nahiz eta hezkuntza emozionalak garrantzia hartzen duen eskoletan, proiektuek ez dituzte emozioekiko lanketa zuzena egiten; eta (3) eskarmentu handikoek formakuntza osagarria jaso dute eskarmentu gutxikoekin alderatuta, hauek oinarrizko unibertsitate formakuntza jaso baitute. Jasotako datu horiek Gradu Amaierako Lan honetan baloratuak izan dira.

Hitz gakoak: emozioak, eskola, Haur Hezkuntza.

Resumen

El objetivo principal de este trabajo ha sido analizar el tratamiento de las emociones que se realiza en las escuelas actuales a lo largo de la etapa de Educación Infantil. Con este objetivo principal y a partir de los datos recogidos, se han analizado otros aspectos como los recursos con los que cuenta cada escuela, el estilo de enseñanza del profesorado, la intervención, la formación del profesorado y la colaboración entre la escuela y la familia. En el estudio han participado 33 profesores, que además de pertenecer a diferentes sexos, edades y escuelas, trabajan en diferentes ciclos educativos y cuentan con diferentes años de experiencia laboral. Todas las escuelas participantes han sido alavesas. Los datos recogidos indican que: entre el profesorado (1) los hombres tienen un menor conocimiento de las competencias emocionales en comparación con las mujeres; (2) aunque la educación emocional adquiere importancia en la escuela, los proyectos no hacen un tratamiento correcto de las emociones; y (3) los profesores y profesoras de mayor experiencia han recibido formación complementaria en comparación de los y las docentes de menor experiencia, que han recibido formación universitaria básica. Los datos obtenidos han sido valorados en el presente Trabajo Fin de Grado.

Palabras clave: emociones, escuela, Educación Infantil.

Abstract

The main objective of this work has been to analyze the treatment of emotions in current schools throughout the Early Childhood Education stage. With this main objective and based on the data collected, other aspects have been analyzed, such as the resources available to each school, the teaching style of the teachers, the intervention, teacher training and collaboration between school and family. 33 teachers participated in the study, who in addition to belonging to different sexes, ages and classes, work in different teaching experiences and educational cycles. All the participating schools were in Alava. The data have been collected indicate that: among teachers (1) men have a lower knowledge of emotional competences compared to women; (2) although emotional education is gaining importance at school, the projects do not deal correctly with emotions; and (3) teachers with more experience have received complementary training compared to teachers with less experience, who have received basic university training. The data obtained have been evaluated in this Final Degree Project.

Keywords: emotions, school, Early Childhood Education.

Aurkibidea

Sarrera	3
Marko Teorikoa	4
Emozioak	4
Zer Da Emozioa	4
Emozio Desberdinak	5
Adimen Emozionala	6
Hezkuntza Emozionala	8
Konpetentzia Emozionalak	8
Irakasleen Formakuntza	9
Haur Hezkuntzako Curriculuma	11
Emozioei Lotutako Helburu eta Edukiak 237/2015 Dekretuan	11
Metodoa	12
Parte-hartzaileak	12
Tresnak	12
Prozedura	13
Datuen Analisia	13
Emaitzak	14
Ondorioak, Hausnarketa eta Hobekuntzarako Proposamenak	20
Erreferentziak	25
Eranskinak	28

Sarrera

Jakina denez, emozioak jaiotzen garenetik protagonista dira gure bizitzetan. Horrela izanik, eskola urteetan zehar ere funtsezko garrantzia hartzen dute etapa desberdinetan eta horregatik egungo eskoletan emozioekin lotutako hainbat kontzepturi erreparatzea garrantzitsua da, horiekin lan egiterako garaian. Horregatik, gaur egun indarra hartzen joan diren kontzeptu eta egile desberdinen hitzei arreta berezia eskainiko zaie hurrengo orrialdeetan. Gainera, egun indarrean dagoen Haur Hezkuntzako Dekretua (237/2015) aztertuko da, araudiak eta emozioek duten harremana ezagutzera emateko. Hortaz, *adimen emozionala, hezkuntza emozionala, konpetentzia emozionalak*, estatu mailan emozioetan adituak diren autore desberdinak eta emozioekin bat datozen beste hainbat kontzeptu, lan eta ikerketaren muina izango dira.

Egungo eskola desberdinetako emozioen lanketaren egoera ezagutze aldera, eskola desberdinetan azterketa edo ikerketa gauzatzea oinarrizkoa izan da eta, horregatik, lan honetan, gaur egun eskola desberdinetan irakasleriak bizi dituen errealitate desberdinak ezagutzera emango dira; beti ere emozioekin, hezkuntza emozionalarekin eta horien lanketarekin zer ikusia duten datuak eskainiz. Hala ere, ez da arreta guztia eskoletan jarriko, lan esperientzia urteak eta beste hainbat alderdik ere emozioetan duten eragina aztertuko da. Hori horrela izanik eta behin datuak jasota, emaitzak aztertuko dira eta egungo egoera ezagutzera emango da, beharrezkoa balitz etorkizunean hobekuntzarako proposamenak egin ahal izateko.

Lanak hainbat atal desberdin ditu. Hasteko, marko teorikoa aurkeztuko da, non emozioen inguruko teoria desberdina landuko den atal desberdinak banatuz; modu horretan, bakoitzean azaldu beharrezkoa zehaztasun handiagoz jorratuko da. Gainera, autore desberdinen hitzek berezko garrantzia hartuko dute. Bigarrenik, metodoa aurkeztuko da eta atal horren barruan ikerketa aurrera eramateko beharrezkoak izan diren alderdi desberdinei egingo zaie erreferentzia; konkretuki, parte-hartzaileak, tresnak, prozedura eta datuen analisiak ezagutzera emango dira. Ondoren, ikerketa honen emaitzak aurkeztuko dira eta, bukatzeko, ondorioak, hausnarketa eta hobekuntzarako proposamenak izendaturiko atalak itxiko du lana, jasotako emaitzak baloratuz.

Marko Teorikoa

Lanaren atal honetan, emozioei lotutako hainbat kontzeptu azalduko dira; izan ere, jakina denez, azken urteotan emozioei eman zaien garrantzia areagotuz joan da esparru desberdinetan eta horregatik, honen inguruan dauden hainbat kontzeptu ezagutzea funtsezkoa da. Lehenik eta behin emozioaren kontzeptuari erreparatuko zaio; bigarrenik, adimen emozionalaren kontzeptuari egingo zaio erreferentzia; hirugarrenik, emozioek hezkuntzan duten garrantzia azpimarratuko da, hezkuntza emozionalari erreferentzia eginez; eta, azkenik, egun dagoen 237/2015 Heziberri Dekretuan emozioek duten tokia aztertuko da.

Emozioak

Zer Da Emozioa

Emozioa eta jarrera emozionala intereseko objektuak izan dira historia osoan zehar eta teoria bat formalizatzeko edo interpretazio-eredu bat sortzeko saiakera ugari egin dira (Levay, 2005). Horregatik, historian zehar eta emozioa definitu zen garaitik gaur egunera arte, teoria eta definizio anitz eman zaizkio kontzeptu honi, lehenengo definitiotik aldaketa nabarmena izan delarik.

Lehenengo definizioetara jotzen badugu, neuropsikologia sortu baino askoz lehenago, emozioaren eta balio moralen arteko erlazioa adierazi zuten Platonek eta Aristotelesek. Emozioak onak dira jokabide morala eragiten badute, eta txarrak dira, portaera balio moral onargarrien aurkakoa bada. Metodo zientifikoaren sorrerarekin, Errenazimentuan, emozioa moralki neutrotzat hartzen da, eta organismoaren egoera fisiologikoekin erlazionatzen da (Levay, 2005).

Aitzitik gaur egun, emozioaren kontzeptuak aldaketa nabarmena jaso du eta oraindik ere ugariak dira esleitzen zaizkion definizioak; hortaz autore desberdinek definizio desberdinak sortu dituzte. Hala nola; emozioa da denok barruan daramagun motorra. Gure burmuineko eremu sakonetan (sistema linbikoan) kokatutako neurona-zirkuituetan kodetutako bulkadek bizitzera bultzatzen gaitu, munduarekin eta geure buruarekin etengabe elkarreaginean bizi nahi izatera. Esna gauden bitartean beti aktibo dauden zirkuituak, alertan

daudenak, eta bizirik irauteko estimulu garrantzitsuak bereizten laguntzen digutenak (Bisquerra, 2012).

Emozioak gure bizitzan agertzen dira jaiotzen garenetik, eta zeregin garrantzitsua dute gure nortasunaren eraikuntzan eta gizarte-elkarreraginean. Emozioek eboluzio-prozesu guztietan parte hartzen dute: komunikazioaren garapenean, gizarte-ezagutzan, informazioaren prozesamenduan, atxikimenduan, garapen moralean, etab. Gainera, egunero hartzen ditugun erabakien iturri nagusia dira (López-Cassá, 2005).

Hala eta guztiz ere, emozioaren definizioari dagokionez, emozioaren teoria nagusiek bi ezaugarri komun dituzte. Alde batetik, emozioak organismoarentzat esanguratsuak edo garrantzitsuak diren estimuluei dagozkien erantzunak direla; eta, bestetik, osagai batzuen arabera definitzen direla. Autore gehienek emozioaren hiru osagai bereizten dituzte: erantzun emozional fisiologikoa, jokaera emozionala eta esperientzia emozional subjektiboa. Erantzun emozional fisiologikoa estimulu emozionalek eragindako aldaketa fisiologikoei osatzen dute (e.g., izerdia, bihotzerritmoaren azkartzea, presio arterialaren arintzea). Jokaera emozionala estimulu emozionalei erantzutean sortzen den jokaera da; besteak beste, aurpegi-adierazpena, ahots-adierazpena eta keinu-mintzaira. Azkenik, esperientzia emozional subjektiboak bizipen subjektiboekin edo egoera subjektiboekin zerikusia du (Conejero et al., 2007).

Emozioaren kontzeptua ezagututa, garrantzitsua da emozioa sentimendutik desberdintzea, oso ohikoa baita bi kontzeptuak hauek nahastea. Emozioek denboran irauten badute, sentimendu bilaka daitezke, eta, gehiago iraunez gero, gogo-aldarteaz hitz egingo genuke; emozioen agerpena are gehiago luzatuz gero, berriz, izaerarekin lotuko genuke (Hik Hasi, 2014). Hortaz, esan daiteke emozioak estimulu baten erantzun afektiboa direla, iraupen motz eta intentsitate handikoak eta sentimenduak berriz, emozioak dituzte aitzindari, denboran irautearen emaitza izanik.

Emozio Desberdinak

Emozioen sailkapenei dagokienez, definizioarekin bezala, sailkapen ugari egin dira; izan ere, nahiz eta historian zehar sailkapena egin den, XX. mendean asmo berezi bat sortu zen emozioak sailkatzeko eta emozio gisa tratatzeko izan behar dituzten ezaugarriak aurkezteko (Moraleda, 2015).

Sailkapen gehienek lehen, funtsezko edo oinarrizko emozioak biltzen dituzte, eta, horietatik abiatuta, bigarren mailako emozio konplexu edo deribatuen beste multzo bat sortzen da. Bigarren multzo hori emozio primarioen arteko konposizioari esker ematen da (Moraleda, 2015). Oinarrizko giza emozio hauen aurpegiko adierazpenak erraz bereizten dira, antzeko estimuluen aurrean gertatzen direlako eta kultura guztietan agertzen eta ezagutzen direlako (Díaz eta Flores, 2001).

Azterketa konplexua egin eta gero eta teoria desberdinak aztertuz, hurrengoak dira Moraledak (2015) bere lanean definitzen dituen oinarrizko sei emozioak: haserrea, beldurra, tristura, nazka, poztasuna eta sorpresa. Sailkapen hau beste proposamen batzuen antzeko sailkapena da, hala nola Ekman, Izard, Stein eta Trabasso, Oatley eta Jenkins edo Power eta Dalgleshek egindakoaren parekoak. Hortaz, Moraledaren (2015) hitzetan, oinarrizko sei emozio hauen definizioak jarraian aurkezten dira (ikusi 1. Taula).

1. Taula. Oinarrizko Emozioen Definizioak.

HASERREA	Gizakiak ezarritako helburuak ez lortzearen ondoriozko emozioa da eta bere baitan hainbat emozio desberdin hartzen ditu: amorrua, sumina, gorrotoa edota gaitzondoa.
BELDURRA	Gizakia erasotzen duen arrisku batek sortutako emozioa.
TRISTURA	Maite dugun zerbait galtzarekin lotzen da, bikotea, familia, hurbileko pertsonaren bat, etxea, lana, maskota, etab. Hala ere, ohikoa izaten da tristura sentitzea zeinaren jatorria zuzenean galerarekin lotuta ez dagoen, adibidez, atsekabea sentitzean.
NAZKA	Gaitzesten gaituen zerbaitek eragindako inpresio desatsegina bezala definitzen da eta emozio hau eragiten duten patroiak komunak izan ohi dira.
POZTASUNA	Biziraupenaren zentzua eman dakiok, eragile motibatzaile on gisa. Beste emozioetan ez bezala, ez da agertzen arrisku edo defentsa jarrerarik.
SORPRESA	Emozio honek beste emozio batzuetara garamatza, hala nola poza, haserrea edota beldurra; horregatik sorpresaren izaera neutral hori negatibo edo positibo bihurtzen da sentitzen dugun emozio berri horren arabera.

Adimen Emozionala

Behin *emozioen* munduan murgilduta eta hurrengo orrialdeetan oinarria izango dena ezagututa, emozioekin harreman zuzena duten hainbat kontzeptu ezagutzera emango dira.

Lehenik eta behin, *adimen emozionala* eta honek hartzen dituen kontzeptu desberdinak ezagutzera emanez.

Adimen emozionala bizitzako hainbat aldagai garrantzitsurekin erlazionatuta dago. Esaterako, osasunarekin eta pertsonarteko harremanen kalitatearekin (Sarrionandia eta Garaigordobil, 2017). 1990ean adimen emozionalaren kontzeptua agertu zenetik (Salovey eta Mayer, 1990), kontzeptu honen eraikuntza gaur egun oraindik jarraitzen duen bilakaeran murgilduta egon da. Horren adibide dira adimen emozionalaren inguruan eskaintzen diren sailkapen ugariak, komunitate zientifikoan nabaria den kontzeptuaren nahasketa eragiten jarraitzen dutenak (Antonio-Agirre, 2019).

Adimen emozionalaren kontzeptua Salovey eta Mayerrekin sortu eta Golemanekin hedatzen den kontzeptua da. Geroztik, teoria eta adimen emozionala neurtzeko test ugari agertu dira eta, harrezkero, sailkapen ugari ere egin dira. Hauen artean, modeloen eduki teorikoei erreparatzen badiegu bi teoria nagusi azpimarra daitezke: (1) emozioetan besterik zentratutako teoriak; eta (2) adimen emozionala, emozioak, gaitasun sozialak eta norberaren ezaugarri multzo gisa definitzen dituzten teoriak (adimen emozional mixtoa).

Emozioei besterik erreparatuz gero, Bisquerrak (2021), Salovey eta Mayerren (1990) teorian oinarrituta, hurrengo dio: adimen emozionalak, zehaztasunez hautemateko trebetasuna, emozioak balioetsi eta adierazteko gaitasuna, pentsamenduak errazteko emozioak sorrarazteko gaitasuna, emozioak ulertu eta ezagutza emozionalak izatearen trebetasuna eta hazkunde/garapen emozionala zein intelektuala garatzeko emozioak erregulatzeko gaitasuna hartzen ditu bere baitan. Adimen emozionalak *bihotz bakarreko pentsalariari* egiten dio erreferentzia, gizarte harremanak hauteman, ulertu eta maneiatzen dituena.

Golemanek (1996) ordea, bost helburu nagusi esleitzen dizkio adimen emozional mixtoari: norberaren emozioak ezagutzea, emozioak kontrolatzeko gaitasuna izatea, norbere burua motibatzeke gaitasuna izatea, besteen emozioez jabetzea eta harremanen kontrola izatea. Hezkuntza mailan ordea, *Grup de Recerca en Orientació Psicopedagògica* (GROP) *eredu pentagonal*a erabiliena izan da. Hezkuntza emozionalean, baita adimen emozionalaren eredu pentagonalean, jarraian sakonduko da.

Hezkuntza Emozionala

Aurretik aipatutako guztia hezkuntza esparrura eramanez, adimen emozionalarekin gertatu den bezala, asko dira kontzeptu hau definitu duten autoreak. Estatu mailan, zabalduenetariko bat bada Bisquerra (2008) hezkuntza emozionala etengabeko prozesu iraunkorra bezala definitzen duena, hezkuntza urteetan zehar curriculumean eta bizitzako etengabeko formakuntzan presente egon behar dena. Konkretuki, hurrengo hitzak erabiltzen ditu hezkuntza emozionala definitzeko: etengabeko heziketa prozesu iraunkorra, garapen kognitiboaren osagarri gisa, garapen emozionala sustatzea helburua duena, bi hauek garapen integralaren funtsezko bi osagarriak izanda. Horretarako, emozioei buruzko ezagutza eta trebetasunak garatzea proposatzen da, egunerokotasuneko egoerei aurre egiten ikasteko; horren helburua ongizate pertsonala eta soziala bermatzea izanik.

Hortaz, hezkuntza emozionalak, hezkuntza formalean erantzuna ematen ez zaien gizarte-beharrei erantzutea bilatzen du, eskolan bizi diren esperientziak emozioen eraginpean baitaude (Bisquerra eta García-Navarro, 2018).

Konpetentzia Emozionalak

Konpetentzia emozionalaren kontzeptua oso zabala da eta hainbat prozesu hartzen ditu bere baitan, baita ondorio desberdinak eragin ere. Kontzeptu hau definitzeko hainbat proposamen desberdin egin dira. Bisquerra eta Perez-Escodak (2007), konpetentzia emozionalak definitu dituzte hainbat autoreren teoretan oinarrituta, hala nola, Salovey eta Sluyter (1997), Goleman, Boyatzis eta Mckee (2002) eta Saarni (1997), besteak beste. Gauzak horrela, konpetentzia emozionalen ezagutza, gaitasun eta jarrerren multzoa dira, zeintzuk beharrezkoak diren emozioak ulertu, adierazi eta gertakari emozionalen erregulazio egokia egiteko (Bisquerra eta Pérez-Escoda, 2007).

GROP ikerketa taldearen adimen emozionalaren eredu pentagonalari erreparatuz, gaitasun edo konpetentzia emozionalak eskuratzeak harreman sozialak eta pertsonen artekoak bultzatzen ditu, gatazkak modu positiboan konpontzen laguntzen du, osasun fisikoa eta mentala sustatzen ditu, eta, gainera, errendimendu akademikoa hobetzen laguntzen du. Arazo sozial eta pertsonal asko analfabetismo emozionalaren adierazgarri dira, horregatik hezkuntza

emozionalaren bidez gaitasun emozionalak lantzea bizitzako hainbat alderdietan eragin positiboa izan dezake (Bisquerra, 2016).

Konpetentzia emozionalak bost multzotan bana daitezke: (1) kontzientzia emozionala; (2) erregulazio emozionala; (3) autonomia emozionala; (4) konpetentzia sozioemozionala; eta (5) bizitzarako eta ongizaterako konpetentzia (Bisquerra eta Pérez-Escoda, 2007).

1. **Kontzientzia Emozionala:** norberaren eta beste pertsonen emozioen kontzientzia hartzea eta egoera konkretu batean sentitzen dituen emozioak ulertzea. Konpetentzia honek bere baitan hainbat ezaugarri ditu, esaterako, norberaren emozioez jabetzea, emozioei hitza jartzea eta besteen emozioak ulertzea.
2. **Erregulazio Emozionala:** emozioak egoki erabiltzeko gaitasuna da, emozio, kognizio eta jarreraz kontziente izanez aurre egiteko estrategiak garatzea, emozio positiboak sortzeko gaitasuna izatea, etab. Konpetentzia honek hurrengo alderdiak deskribatzen ditu: emozio, kognizio eta jarreraren arteko erlazioaz kontziente izatea, emozioen adierazpena eta erregulazioa, egoera emozional zailei aurre egiteko gaitasuna eta emozio positiboak sortzeko gaitasuna.
3. **Autonomia Emozionala:** autogestio pertsonalarekin zerikusia duten ezaugarri eta elementuak biltzen dituen kontzeptu zabala da, hauen artean autoestimua, automotibazioa, jarrera baikorra, ardura, auto-efikazia emozionala, gizarte arauen aurrean jarrera kritikoa izatea eta erresilientzia daude.
4. **Konpetentzia Sozioemozionala:** beste pertsonekin harreman ona izateko gaitasuna. Konpetentzia honek bere baitan hartzen ditu oinarrizko giza trebetasunak menderatzea, besteekiko errespetua, komunikazioa sustatzea, emozioak partekatzea, kooperazio jarrera, asertibitatea eta gatazkei aurre egiteko jarrera.
5. **Bizitzarako eta Ongizaterako Konpetentzia:** eguneroko bizitzako erronkei aurre egiteko jarrera egoki eta arduratsuak izatea, eremu pertsonal zein profesionalean. Jarrera hauek egunerokotasuna modu osasuntsuan kudeatzea ahalbidetuko digute, poztasuna eta ongizatea lortuz.

Irakasleen Formakuntza

Behin emozioen eta hezkuntzaren munduan murgilduta, garrantzitsua da irakasleek haurraren eskola urteetan emozioen lanketan egiten duten prozesua aztertzea eta horretarako, irakasleek izan beharko luketen edo jaso beharko luketen formakuntzari erreparatuko zaio.

Hezkuntza emozionalaren garrantziak, ikerketa-lan ugarienez gain, gero eta interes handiagoa sortu du irakasleari ikasleen arteko harreman sozioafektiboak garatzen lagunduko dioten materialak eta programak sortzeko. Hala ere, programa hauek material baliagarri eta malgutzat hartu behar dira beti. Profesionalak bere gelako benetako beharretara egokitzen jakin beharko du, hauek ebaluatu eta hauteman ondoren (De Andrés, 2005).

Garrantzitsua da irakasleak programa hauek aplikatzeko orduan izan behar duen rolari buruzko hausnarketa egitea. Irakasleak ikasleek beren artean dituzten elkarreraginei aurre egiteko emozio-eredu egokiak transmititzen jakin behar du (imitazio-ereduen emaitza izanik ikaskuntza bikarioaren bidez), eta ikasleei zenbait balio transmititzeko gai izan behar da (De Andrés, 2005). Horretarako, Cabello eta kolaboratzaileek (2010) baieztatzen duten moduan, gaitasun emozional, afektibo eta sozialak menderatzen dituzten irakasle-taldeak landu beharko dituzte ikasgela baita gaitasun sozioemozionalak garatzeko espazio garrantzitsuenetariko bat. Gainera, emozioak zentzuz identifikatzeko, ulertzeko, arautzeko eta pentsatzeko gaitasun handiagoa duten irakasleek baliabide gehiago izango dituzte ikasle emozionalki prestatuagoak lortzeko eta hezkuntza-testuinguruan maiz sortzen diren gertaera estresagarriei hobeto aurre egiteko (González et al., 2010).

Hortaz, García-Navarrok (2017), irakasleen prestakuntzan kontuan hartu beharreko hainbat helburu finkatzen ditu. Lehenik eta behin irakasleak sensibilizatzea emozionalki garatzeko beharraz eta garrantziaz, ondoren honek izango duen erantzukizun pertsonal, profesional eta sozialagatik. Bigarrenik, irakasleen gaitasun emozionalen garapena sustatzea. Hirugarrenik, heziketa emozionala hezkuntza prozesuetan oinarritzea, emozioei, heziketa emozionalari eta adimen emozionalari buruzko oinarritzko kontzeptuak ezagutzea. Laugarrenik, adimen emozionalaren eredu pentagonalaren kompetentzia emozionalak garatzea ahalbidetuko duten jarduerak irakasleekin egitea, ikasgelan eta antolamenduan giro emozional onak duen garrantziaz ohartzea eta horrek pertsonen arteko harremanetan duen eragina ulertzea. Bukatzeko, hezkuntza emozionala ezartzeari begira, hezkuntza berriztatzeko prozesua sustatu eta dinamizatzea.

Haur Hezkuntzako Curriculuma

Hezkuntza munduari behin erreferentzia eginda, jarraian hezkuntzan dagoen araudia aztertuko da, hau baita egungo errealitatea eta etorkizunean irakasleok aurkituko dugun errealitatea. Hortaz atal honetan Haur Hezkuntzako curriculuma den 237/2015 Dekretuari erreferentzia egingo zaio, emozioak ere honen parte izan behar direlako, De Andrések (2005) azpimarratzen duen moduan: lo que sienten los niños sobre sus experiencias de aprendizaje, debe ser tan importante, como lo que aprenden. Por lo tanto las emociones deben ser parte del currículum en la edad temprana.

Emozioei Lotutako Helburu eta Edukiak 237/2015 Dekretuan

Haur Hezkuntzako curriculum honetan, bi esparru bereizi ditzakegu: *nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren* eremua (1. esperientzia eremua) eta *nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren* eremua (2. esperientzia eremua). Hala eta guztiz ere, eremu horiek ez dute emozioekiko lotura zuzenik adierazten, hau da, emozioei egiten zaizkien aipamenak zeharka egiten dira, beste ekintza batzuekin lotura eginez. Horregatik ez dago emozioetan soilik zentratzen den helburu edota eduki konkreturik. Hau esanda, hurrengo paragrafoetan emozioak bere baitan hartzen dituzten hainbat helburu eta eduki ezagutzera emango dira.

Hasteko, helburuei dagokienez, lehenengo eremuan hiru helburu nagusi azpimarra daitezke, zeinetan norberaren nortasunaren eraikuntza, ongizate emozionala eta ekimenak abiatzea, hau da, ekintzak planifikatzea aipatzen diren. Bigarren eremuari dagokionez, norberaren emozio eta sentimentuak ezagutzean eta hauetaz jabetzean jarri daiteke fokua, baita hauek adierazteko ahozko hizkuntza erabiltzean ere. Hortaz, nahiz eta emozioek bigarren eremuan pisu gehiago hartu, ez dira ezta ere espezifikoki lantzen. Helburu hauek zehaztasunez ezagutzeko ikus bedi 1. Eranskina.

Jarraitzeko, edukiei dagokienez, lehenengo eta bigarren eremuan pertsonen arteko harremanak, gatazken kudeaketa eta emozioen autoerregulazio eduki komunek barne hartzen dituzte emozioak. Lehenengo eremuan zentratuz, norberaren emozioen edukiak gailentzen dira, hala nola, nortasuna eraikitzeke, lotura afektiboak egiteko, enpatia eta afektu harremanak sortzeko, etab. Horregatik, lehenengo eremu honetan segurtasun, lotura eta

harreman afektiboek, emozioak lantzeko edukien barnean oinarrizko garrantzia hartzen dute. Bigarren eremuak ordea, komunikazioan jartzen du fokua, emozioak hitzen bidez adierazi edota komunikazio modu desberdinak deskubritzean adibidez. Eduki hauek zehaztasunez ezagutzeko ikus bedi 2. Eranskina.

Metodoa

Ondorengo ataletan, burututako ikerketaren inguruko datuak eskainiko dira. Ikerketa hau egiteko ikerkuntza kuantitatiboa, deskriptiboa eta ex post-factoa erabiliko dira. Ikerketa honetarako, galdetegi bat sortu da (ikus bedi 3. Eranskina) eta galdetegiaren emaitzak zenbaki eta deskripzio bidez jasoko dira, datu hauek momentu eta denbora zehatz batean jasoak izan direlarik. Jasotako emaitzak modu konkretuagoan aztertzeko, ikus bedi 4. Eranskina.

Parte-hartzaileak

Ikerketan konkretuki 27 emakumek eta 6 gizonen parte hartu dute, 22 eta 64 urte artean dituztelarik. Eskola motari dagokionez, eskola publikoko 11 erantzun jaso dira eta ikastolen elkartekoak diren 22 erantzun. Parte-hartzaileen irakaskuntza esperientziari dagokionez, adinarekin bezala, aldea nabarmena da. Konkretuki, 2 urteko esperientzia duten parte-hartzaileak dira irakaskuntza munduan urte gutxien daramatenak eta 42 urteko esperientzia gehien dutenak. Zikloari erreferentzia eginda, 33 parte-hartzaileetatik, 9 lehenengo zikloko irakasleak dira, 22 bigarren ziklokoak eta irakasle batek ez du zehaztu zein ziklotan egiten duen lan. Bukatzeko aipatzekoa da ikerketan parte hartu duten eskola guztiak Arabakoak direla.

Tresnak

Emozioen lanketa eskolan galdetegiak irakasleen usteak jasotzen ditu eskolan egiten den emozioen lanketaren inguruan eta ikerketa honen helburuetarako espresuki sortua izan da, hau da, ad hoc sortutako galdetegia da. Galdetegia 19 itemek osatzen dute eta horiek bost dimentsio desberdinetan banatuta daude: (1) eskolak eskaintzen dituen baliabideak, 1-3 bitarteko itemak; (2) irakasleen irakaskuntza estiloa, 4-7 bitarteko itemak; (3) emozioen inguruko esku-hartzea, 8-9 bitarteko itemak; (4) emozioen inguruko formakuntza, 10-11 bitarteko itemak; eta azkenik, (5) elkarlana, 12-13 bitarteko itemak. Dimentsio horietako

bakoitzean dauden item horiek zehaztasun handiagoz deskribatzen dute dagozkien gaia. Item horiek galdera mota desberdinekin sortu dira: 9 item 1 eta 5 bitarteko erantzun posibleak dituzte, eskala linealeko edo likert motakoak izanik; 5 item erantzun antitzekoak dira; 4 item ireki; eta dikotomikoa den item bakarra.

Prozedura

Emozioen lanketa eskolan ezagutzeko asmoz, horien inguruko dimentsioak aukeratu eta dimentsio bakoitzean item desberdinak proposatu dira, horien egokitasuna baloratu galdetegia sortzerako garaian. Hasiera batean, zazpi dimentsio desberdin sortu ziren eta horietako bakoitzean item desberdinak planteatu. Azken galdetegia, ordea, bost dimentsio desberdinek osatzen dute (i.e., eskolako baliabideak, irakaskuntza-estiloa, esku-hartzea, formakuntza, elkarlana). Galdetegitik kanpo hainbat item geratu dira, zehaztasun faltagatik eta orokorregiak izateagatik, hain zuzen. Behin itemak erabakita, Google Forms plataforman sortu da galdetegia eta eskola desberdinetara bidali baino lehen, honen erabilera konprobatu da, irakasleen datu zehatzak jasotzeko falta ziren galderak gehituz.

Galdetegia betetzeko hainbat irakaslerekin zuzenean kontaktatu da, batzuk, komenentziako lagina izanik, besteak ordea, hausazkoak korreo elektronikoaren bitartez. Galdetegia martxoaren bukaeran bidali zen eta erantzunak martxoa, apirila eta maiatza bitartean jaso dira.

Datuen Analisia


Ikerketa martxan jartzeko eta datuak jasotzen hasteko, lehenik eta behin ikerketaren muina den galdetegia sortu da eta hori egiteko Google Forms plataforma erabili da. Behin galdetegiaren erantzun guztiak jasota (datu basea ikuskatu nahi duen edonork Gradu Amaierako Lan honen egilearekin harremanetan jartzetik badu), datuen analisia egiteko hainbat programa erabili dira; hala nola, Microsoft Excel eta SPSS v.26. Bestetik, datuen azterketa kuantitatiboa egiteko erabilitako teknika, mediak egitea, portzentaiak kalkulatzeko, konparaketak egitea, eta bestelako teknikak izan dira.

Emaitzak

Emaitzen atal honetan, galdetegian jasotako erantzunak ezagutzera emango dira parte-hartzaileen erantzun desberdinak alderatuz; hau da, jasotako erantzunak dimentsioei erreferentzia eginda azalduko dira, hurrengoak izanik: (1) eskolak eskaintzen dituen baliabideak; (2) irakasleen irakaskuntza estiloa; (3) emozioen inguruko esku-hartzea; (4) emozioen inguruko formakuntza; eta azkenik, (5) elkarlana. Hala ere, beste hainbat alderdi hartuko dira kontuan esanguratsuak diren emaitzak egonez gero. Hortaz, dimentsioez gain, emakumezko eta gizonezkoen erantzunak alderatuko dira, lehenengo ziklokoak eta bigarren ziklokoak, eskola mota desberdinekoak eta azkenik, irakaskuntza esperientzia urteei erreparatuko zaie. Hori esanda, hurrengo paragrafoetan erantzunak ezagutzera emango dira, erantzunak grafikoki azaltzen diren irudiekin bat eginez.

Lehenengo dimentsioari erreferentzia eginda, *eskolako baliabideei* hain zuzen, galdetegia erantzundako irakasle guztiek oro har emozioen lanketa bermatzen dela erantzun dute; metodologiak, eskolako espazioek eta lantzen dituzten proiektu desberdinek hau ahalbidetzen dutelarik, nahiz eta azken honetan emozioek leku gutxi duten. Nabarmentzekoa da, 1. zikloan lan egiten duten emakumeen erantzunek bat egin dutela proiektuei buruz galdetzerakoan, hau da, lantzen diren proiektuek ez diete behar bezain beste garrantzi ematen emozioei eta hauetan emozioen lanketa eskasa azpimarratzen dute. Erantzun berdinak jaso dira 2. zikloan eta eskola publikoan lan egiten duten gizonezkoen artean proiektuei erreparatuta. Irakaskuntza urteei erreferentzia eginda, hau da, lan esperientziari, 5 urteko esperientzia baino gutxiago duten emakumeek eta 5 urteko esperientzia baino gehiago duten gizonek ere, proiektuetan jarri dute fokua, emozioen lanketa eskasa egiten dela adieraziz.


1. Irudia. *Eskolak Emozioen Lanketa Bermatzeko Eskaintzen Dituen Baliabide Desberdinen Balorazioa. Baliabideak, Metodologia, Proiektuak eta Eskolako Espazioak Izanik.*



Oharrak. Histogrametan erantzunek 1-etik 5-erako adostasun maila adierazten dute, non 1 desadostasun maila gorena eta 5 adostasun maila gorena den.

Bigarren dimentsioak *irakasleen irakaskuntza estiloari* erreferentzia egiten dio eta bertako erantzunak kontuan hartuta, ondorengoa da jaso den informazioa: nahiz eta irakasle gehienek egunerokotasunean emozioei erreparatzen dieten, guztizko garrantzia bi herenek ematen diote eta heren batek gehienetan emozioak kontuan hartzen ditu. Aldiz, emaitzek adierazten dute konpetentzia emozionalen ezagupena ez dagoela guztiz zabaldua eta hauek ez dituztela guztiz menperatzen. Erantzun antzekoak jaso dira emakumezko eta gizonezkoen artean, konpetentzia eta baliabideak arlo ezezagunenak izanik. Erantzun berdintsuak eman dituzte 1. zikloan eta 2. zikloan ere, emozioak irakaskuntza estiloaren parte dira, baina konpetentzia emozionalak ezagutzen ez dituztenak baliabide eskasagoak dituzte; gainera 2. zikloko gizonezkoen erdiak ez ditu konpetentzia emozionalak ezagutzen eta egunerokotasunean ez dituzte emozioak kudeatzeko baliabiderik eskaintzen. Eskola motari erreparatuta, eskola publikoan emozioak irakaskuntzaren parte dira osotasunean, ez ordea Ikastolen Elkarteko irakasleen irakaskuntza estiloan, konpetentzia emozionalak ezezagunagoak baitira. Aipatzekoa da irakaskuntza arloan 5 urte baino gutxiago daramatzaten irakasleek konpetentziak ezagutzen dituztela haurrak horiek eskura ditzaten. Ez da berdina gertatzen ordea, irakaskuntzan 5 urte baino gehiago daramatzaten irakasleekin.

2. Irudia. *Irakasle Bakoitzak Bere Irakaskuntza Estiloan, Hainbat Alderdi Kontuan Hartuz, Emozioen Lanketa Barne Hartzen Duen Adierazten Du.*




Oharrak. Histogrametan erantzunek 1-etik 5-erako adostasun maila adierazten dute, non 1 desadostasun maila gorena eta 5 adostasun maila gorena den.

Hirugarren dimentsioa *esku-hartzean* zentratzen da eta parte-hartzaile gehienek emozioak ariketa espezifikoak eginez eta zeharka ere lantzen dituztela adierazi dute, egunerokotasuneko egoerez baliatuz besteak beste. Era berean azpimarratzen dute haurren emozioak interpretatzea eta ulertzea zailtasuna duela, gehienek material edota baliabiderik ez dutelako. Hala ere, heren batek adierazi du ez duela zailtasunik aurkitzen emozioekin lan egiteko garaian. Emakumeei dagokienez, gehienek esku-hartze edota ariketa espezifikoak egiten ditu emozioak lantzeko, kopuru txikiago batek zeharka lantzen dituela adierazi du. Gizonezkoen kasuan ordea, gehiengoak zeharka lantzen ditu. Aipatzeko da bigarren zikloan ariketa edota esku-hartze espezifikoak erabiltzen dituztela emozioak lantzeko eta erantzun duten emakume irakasleen erdiari hauek interpretatzea kostatzen zaien arren, beste erdiak ez du zailtasunik aurkitzen; gizonezkoek ordea adierazi dute gehienetan zeharka lantzen dituztela eta zailastunak dituztela hauek interpretatu eta ulertzeko. Lehenengo zikloan ordea gehiengoak adierazi du zailagoa egiten dela emozioak ulertu eta interpretatzea. Eskola motari dagokionez, publikoari erreferentzia egiten badiogu, sexuaren arabera jaso diren emaitza berdintsuak jaso dira, hala ere hauek interpretatzerako garaian, emakumeen erdiak ez du zailtasunik adierazi, bai ordea gizonezkoek, material edota baliabide falta dagoela azpimarratuz. Ikastolen Elkarteko erantzunei dagokienez, eskola publikoaren emaitza berdintsuak jaso dira, bai emakume zein gizonen aldetik. Esperientzia urteei erreparatuta, arestian esandakoa berreskuratuko da, hau da, sexuaren arabera emaitzen antzekoak jaso dira: emakumeen esku-hartze gehienak espezifikoak dira eta kopuru txikiago batek zeharka

lantzen ditu, hala ere, egunerokotasuneko egoerak garrantzitsuak direla uste dute; hauen erdiak emozioak interpretatzeko zailtasuna adierazi du, beste emakumeen erdiak ordea ez. Gizonezkoen kopuru handi batek zeharka lantzen ditu emozioak, programa espezifikoekin (Kuku Programa) bat eginez. Zailtasunei dagokienez, hauek interpretatzerako garaian aurkitzen dituzte, besteak beste, materialik ez dutelako, ume batzuek hizkuntza garaturik ez dutelako edota emozioak bat-batean azaleratzen direlako.

3. Irudia. *Ondorengo Irudiek Esku-hartzearen Inguruko Informazioa Eskaintzen Dute. Lehenengoak Gela Barruan Emozioen Lanketa Nola Egiten Den Adierazten Du eta Bigarrenak Ordea, Emozioekin Lan Egiteko Zailtasunak Adierazten Ditu, Baldin eta Badaude.*




Oharrak. Diagrama zirkularretan erantzunak portzentaiaren arabera azalduko dira.

Formakuntzari dagokionez, hau da, laugarren dimentsioari dagokionez, inkesta erantzun duten parte-hartzaileen erdiak baino gehiagok formakuntza jaso dute, gehienak epe tarte mugatuetan, nahiz eta ikastaro mota desberdinak jaso dituzten entitate desberdinetan. Emakume zein gizonen erantzunek berdintsuak izan dira eta arestian adierazi bezala, hauetako erdiak baino gehiagok irakaskuntza etapan zehar emozioen inguruko formakuntza

jaso du. Lehen zikloari erreferentzia eginda, emakumeen gehiengoak ez du formakuntzarik jaso eta jaso duenak, egunerokotasuneko egoerak lehenesten ditu emozioekin lan egiteko; gizonezkoek ez dute jaso. Bigarren zikloan ordea, emakumeen gehiengoak, ia %80ak, jaso du formakuntza epe tarte mugatuan zein etengabeko prozesuetan. Formakuntza hauen artean Kuku Programa, Berritzegune, Konfiantzaren Pedagogia, Prest Garatuko, master pribatuak, ikastaro desberdinak eta eguneroko egoerak dira aipatzekoak. Gizonezkoen kasuan, erdiak jaso du formakuntza, ikastaro zein programa konkretuekin lan eginez, Kuku Programa izanda aipatuena. Eskola publikoan fokua jarrita, erdiak baino gehiago jaso du formakuntza ikastaro desberdinetan, psikomotrizitate saioak, Berritzegune eta Prest garatuko, hala ere egunerokotasuneko egoerak oso baliagarriak direla azpimarratzen dute. Ikastolen Elkartean ordea, gehiengoak Kuku Programarekin egin du lan, baita ikastaro pribatu zein norberak bere kabuz lana eginez jaso du formakuntza. Irakaskuntza urteen esperientziari erreparatuta, 5 urte baino gutxiagoko emakume bakarrak jaso du formakuntza modu pribatuan, gizonezkoek ordea ez. Bestetik, 5 urte baino gehiago irakaskuntzan daramatzatenen emakumeen ia %80k jaso du formakuntza, Kuku Programa aipatuena izanik; gizonezkoen artean %60 batek jaso du formakuntza, Ikastolen Elkarteko Kuku Programa berriro ere aipatuena izanik.

4. Irudia. *Irakasleek Emozioen Inguruko Formakuntza Jaso Duten Irudikatzen Du Irudiak.*




Oharrak. Diagrama zirkularretan erantzunak portzentaiaren arabera azalduko dira.

Azken dimentsioa, *elkarlanari* erreferentzia egiten diona, parte-hartzaileen erantzunek argi uzten dute eskolako giroak haurren emozioetan eragin zuzena duela, familiarekiko inplikazio ordea kasu batzuetan eskasagoa da. Emakumeen erantzunetan zentratzen bagara, eskolako giroak haurrengan eragina duela azpimarratzen duten moduan, familiaren inplikazio falta ere aipagarria da emakume erdien erantzunak aztertuta. Gizonezkoen kasuan berdina

antzeman dezakegu. Lehenengo zikloari erreparatzen badiogu, emakumeen usteetan eskola giroak zuzeneko eragina izaten jarraitzen du eta familiaren inplikazioa eskasa da, ez ordea gizonezkoen usteetan, familien inplikazioa eta emozioekiko lanketa egiten dela azpimarratzen baitute. Bigarren zikloan ere eskolako giroak eragin zuzena duela adierazten dute bai gizonezkoek zein emakumezkoek. Familietan emozioen inguruan egiten den lanketari erreparatuta ordea, emakumeen ustez familien inplikazioa areagotu egiten da, eta gizonezkoen erantzunek kontrakoa adierazten dute. Eskola publikoan fokua jarriz, giroak zein familien eragina garrantzitsua da emozioetan eta horregatik erantzunek erakusten dute, familiak inplikatuak daudela hauek lantzeko garaian. Ikastolen Elkartean ordea, familiaren lanketa emozioekiko eskasagoa da. Irakaskuntza urteetan fokua jarriz, parte-hartzaile gehienek azpimarratu dute familietan egiten den lanketa emozioekiko eskasa dela.

5. Irudia. *Eskola eta Familia Giroan Emozioekin Egiten Den Lanketa eta Honetan Eragina Duten Faktoreak Adierazten Dira.*



Oharrak. Histogrametan erantzunek 1-etik 5-erako adostasun maila adierazten dute, non 1 desadostasun maila gorena eta 5 adostasun maila gorena den.

Azkenik, ikerketaren emaitzekin bukatzeko, galdetegairen azken galderari erreparatuko zaio. Galdera honek zehazki emozioen inguruko informazio gehigarria gehitzeko aukera ematen zuen: esperientzia desberdinak, erabiltzen dituzten teknikak, etab. Galdera hau erantzun duten emakume guztiak, antzeko adina dute eta urte dezente daramatzate irakaskuntzan, hortaz eskola mota eta zikloa dira aldatzen diren elementuak. Eskola publikoan lan egiten dutenek, lehenengo eta bigarren zikloa kontuan hartuz, hurrengo alderdietan jarri dute fokua: familiarekin enpatizatzean eta hauekin hartu-emanan izatean,

psikomotrizitate saioak egitean, entzute enpatikoa eta ez epaitua egitean, komunikazio ez bortitza erabiltzean, haurrekin emozioei buruz hitz egitean, sentitzen dutenari hitza jartzean eta hauen altueran jarri eta begietara begiratzean; hau guztia maitasunean murgilduta eginez. Bestetik, Ikastolen Elkarteko kide den emakumeak eta gizonezkoen gehiengoak, Kuku Programari egin diote erreferentzia. Bestetik, gizonezkoek ere teknika desberdinak erabiltzen dituztela adierazi dute, hala nola, nirekin egoteko txokoa eta maitasungrama, *Pentacidad* eta *Comunicación no violenta* programekin batera.

Ondorioak, Hausnarketa eta Hobekuntzarako Proposamenak

Behin emaitzak aztertuta, ondorio desberdinak atera dira, marko teorikoan aipatutako alderdi desberdinekin bat egiten dutelarik. Ondorio hauek, aztertutako dimentsioekin bat datoz, horregatik hauekin bat eginez eta ordena jarraituz, ezagutzera emango dira. Horretaz gain, hausnarketa eta hobekuntzarako proposamenak ere aurkeztuko dira jarraian.

Lehen dimentsioari erreferentzia eginda, hau da, *eskolako baliabideei*, ondoriozta daiteke emozioen lanketa zeharka eta espezifikoki egiten dela, hezkuntza emozionala lantzeko baliabide desberdinak kontuan harturik. Hori horrela izanda, eskolak hori aurrera eramateko erabiltzen dituen metodologia eta espazioen antolakuntzaren bitartez, emozioen zeharkako lanketa egiten da eta proiektuekin, ordea, lanketa zuzena. Hala eta guztiz ere, eskola desberdinetan erabiltzen dituzten proiektuen helburuak ez daude hezkuntza emozionalari soilik bideratuta, hau da, beste helburu didaktiko batzuk ere badituzte, eta, horren ondorioz, irakasle batzuen ezagutzak emozioen lanketarekiko eskasak dira, ezjakintasunean murgildurik daudelako batik bat. Emozioek eskoletan duten lekua ere nahiko berria da eta horiekin lan egiteko formazio gehiago behar da. Gainera, Cabello eta kolaboratzaileek (2010) azpimarratzen duten moduan, lehenik eta behin, programa emozionalak aplikatzeko, irakasleek gaitasun sozioemozionalak menperatu behar dituzte aldez aurretik.

Bigarren dimentsioan fokua jarrita, *irakasleen irakaskuntza estiloan*, hain zuzen, emaitzek erakusten dute egunerokotasunean gehiengoek horiei erreparatzen dietela. Horrek adierazten du emozioak garrantzia hartzen doazela hezkuntza arloan; izan ere, Bisquerrak (2008) baieztatzen duen moduan, gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da hezkuntza emozionalaren lanketa, eskola urteetan eta bizitzako etengabeko formakuntzan. Hala ere,

emozioen lanketa horretaz baliatzeko eskolako baliabide zein baliabide pertsonalak murriztak dira, batez ere, gizonezkoetan, Ikastolen Elkarteko irakasleriaren artean eta esperientzia handia dutenen artean.

Baliabide gutxiago dituztenen artean, konpetentzia emozionalen ezezagupena nabaria da eta Bisquerra eta Pérez-Escodaren (2007) hitzetan, emozioak egoki ulertu, adierazi eta kudeatzen jakiteak erronkei aurre egiteko estrategiak eskainiko dizkio pertsona orori. Horregatik, emozioekin lanketa egiteko, konpetentzia emozionalak beharrezkoak diren tresnak dira. Arestian aipatu bezala, gizonezkoen kasuari erreparatua zehazki, egungo gizartean indartsu jarraitzen duten genero-estereotipoen ideiarekin bat datoz jasotako datuak. Izan ere, emozioen mudua ez zaie emakumeei bezain beste irekitzen eta gainera ez zaizkie emozioen inguruko estrategiarik irakasten; horregatik, ez-jakintasun hori genero estereotipoen eskutik bat datorrela esan daiteke. Ikastolen Elkartean fokua jarrita, berriz, deigarriak dira jasotako erantzunak, konkretuki adierazten baitute emozioak irakaskuntzaren parte direla, baino ez bere osotasunean; konpetentzia emozionalen ezagupena adibidez, ez baitago guztiz zabaldua eta horrek emozioekin lan egiteko baliabide eskasagoak izatea eragiten du. Deigarriak direla adierazi da, transmititzen dituzten balioen baitan, ikaslearen garapen integral eta sozioemozionala daudelako eta emozioak lantzen dituzten programa propioak dituztelako. Hala ere, esperientzia handia dutenen erantzunekin bat egin dezakete Ikastolen Elkarteko erantzunen datuek. Kontuan hartu beharrekoa da bertako irakasleen adinaren batezbesteko altua eta emozioen inklusioa egungo eskolan ideia berria dela ikusirik, eragina duten faktoreak izan daitezke. Eskarmentu handiko irakasleek ez bezala, irakasle berriek oinarrizko unibertsitate ikasketetan azaletik bada ere, ezagunak dituzte emozioen inguruko kontzeptu desberdinak.

Esku-hartzea aztertzen duen hirugarren dimentsioko datuetara jotzen badugu, hainbat alderdi ondoriozta daitezke. Lehenik eta behin, irakasleriak emozioak lantzeko ariketa espezifikokoak eta zeharkakoak egiteaz gain, gehiengoak egunerokotasunaren garrantzia azpimarratu du; hau da, gelako haurrak ezagutu, egunerokotasuneko egoerak behatu, eta abar, beharrak identifikatzeko. Horrek bat egiten du De Andrésen (2005) hitzekin; izan ere, autoreak azpimarratzen duen moduan, emozioak lantzeko programak material malgutzat hartu behar dira eta profesionalak bere gelako beharretara egokitzen jakin beharko du. Hala ere, parte-hartzaileen erdiak adierazi dute emozioak interpretatu eta haiek ulertzea ez dela lan erraza. Are gehiago, lehenengo zikloko eta gizonezkoen emaitzak kontuan hartzen badira,

konplexuagoa egiten baitzaie emozioak ulertu eta interpretatzea. Horregatik, muinera joes gero, ikasleen etapa ebolutiboko edo ezaugarri konkretuetara lotutako zailtasuna dela ondoriozta daiteke, Díaz eta Floresek (2001) adierazten baitute, oinarrizko giza emozioen aurpegiko adierazpenak antzeko estimuluen aurrean gertatzen direla eta kultura guztietan agertzen eta ezagutzen direla. Horregatik, arestian aipatutako ideiarekin bat egin dezakete jasotako datu hauek; konkretuki, gizonezkoek bizitza osoan zehar jasotzen duten emozioen inguruko informazio ezarekin, oraingoan ere estereotipoen mende egonik.

Laugarren dimentsioko emaitzak aztertuta, *formakuntza*, parte-hartu duten irakasleri erdiak baino gehiagok formakuntza jaso dutela ondoriozta daiteke, gehiengoak bigarren zikloan eta esperientzia gehiago duten irakasleak izanik. Honek argi uzten du, nahiz eta esperientzia gutxiago duten irakasleek oinarrizko unibertsitate ikasketetan emozioen inguruko formakuntza jaso, esperientzia gehiago dutenen artean, interesa eta beharra adierazten dutenek egiten dutela formakuntza jasotzeko ahalegina; entidade eta programa desberdinak ere izan direlako aipatuak. Hala ere, formakuntzaz gain, irakasleen prestakuntzan kontuan hartu beharreko beste hainbat alderdi badaude. Hala nola, García-Navaroren (2017) hitzei erreparatuta, irakasleak sentibilizatuta egon behar dute norbera emozionalki garatzeko beharraz eta garrantziaz, gaitasun emozionalaren garapena sustatu behar dute edota heziketa emozionala hezkuntza prozesuetan oinarritu. Horregatik, ondoriozta daiteke formakuntzaz gain, beste hainbat alderdi pertsonal, sozial eta profesionalekin ere lan egin behar dela, gaitasun emozionalak landuz.

Azkenik, arestian aipatu bezala, bosgarren dimentsioak, *elkarlanak*, argi uzten du eskolako giroak haurren emozioetan zuzeneko eragina duela. Izan ere, Bisquerrak eta García-Navarrok (2018) azpimarratzen duten moduan, eskolako esperientziak emozioen eraginpean daude. Alabaina, familiek emozioekin egiten duten lanketa eta haiek duten inplikazioa eskasagoa da, bai orokorrean, baita kasu konkretuetan ere. Esaterako, eskola publikoko erantzunak Ikastolen Elkarteko erantzunekin alderatuta, eskola publikoan familien inplikazioa handiagoa baita. Hala ere, familien parte-hartzea emozioen lanketan oinarrizko alderdizat jo beharko litzateke, Haur Hezkuntzako curriculumeko hainbat edukik, familiak bere baitan hartzen dituztelako. Hala nola, norberaren segurtasun afektiboa ziurtatzeko estrategiak erabiltzea (e.g., erreferentziazko pertsona helduaren begirada bilatzea, kontaktu afektiboa eskatzea); edota, haurrak parte hartzen duen gizarte taldeetan ezartzen diren harreman afektiboen garrantzia balioestea (237/2015 Dekretua). Gogoratu beharra dago

familia sozializatzeko eta hainbat gaitasun eskuratzeko lehenengo esparrua dela eta eskola bigarrena. Horregatik, bi esparruen arteko jarraitasuna bermatzea, hezkuntza emozionalari dagokionez, oinarrizko alderdi bihurtzen da.

Behin ondorioak aurkeztuta eta lan osoa kontuan hartuta, hausnarketa eta hobekuntzarako proposamenak aurkeztuko dira; lehenik eta behin lanaren mugak eta ondoren lanaren ekarpenak ezagutzera emanez. Hasteko, lanaren mugei erreparatuz eta, konkretuki, metodoaren atalari erreferentzia eginez, lagina aipatzeko alderdia da. Etorkizunean lagina zabalagoa izateak ikerketari heterogeneotasuna emango liokelako, aztertzekeo datu gehiago eskainiz eta Haur Hezkuntzako irakasleri guztiaren erakusgarriak izanik. Gainera, lagina lortzeko bideak hobetu daitezke, ikerketa honetan erabilitako lagina intzidentala izan delako. Hau da, harremanetan jarrita eskolak, ezagunak eta eskuragarri zeudenak izan direlako. Hori gainditzeko, kontaktuan jartzeko moduak areagotuko beharko liriateke, parte hartu duten eskola kopurua zabaltzeko eta lagina modu probabilistikoan aukeratzeko. Azken muga bat aipatzekotan, datuak behin jasota, erabilitako konparaketak kualitatiboaz gain, beste batzuk ere erabiltzea, kuantitatiboa izan daitekeen bezala.

Bestetik, lanaren ekarpeni dagokienez, lan honek egungo egoera ezagutzera ematen duela esan daiteke, eskola desberdinetan emozioekiko egiten den lanketa aztertu baita. Horretaz gain, eskola mota desberdinek egiten duten lana ere ezagutzera emateko aukera eskaini du lan honek, baita etapako zikloa, parte-hartzaileen sexua, adina eta esperientzia urteak kontuan hartu ere. Horregatik, autokritika egiteko aukera ere eskaintzen du lan honek eta etorkizunean irakasle izango garenoi emozioen lanketaren inguruko errealitatearen ikuskera zabalagoa eskaintzen digu, eskola mota desberdinak aztertuak izateaz gain, beste hainbat datu ere aztertu direlako, beharrezkoa izango balitz aldaketarako aukera eskainiz.

Egun emozioen lanketarekiko dagoen egoera jasota gelditu da, honen aurrean nola jokatu jakiteko besteak beste; lan hau emozioen lanketaren egoera ulertzeko diagnosi tresna izan baita. Modu berean, oinarrizko ikasketetan emozioen inguruan eskaintzen den formakuntzaz hausnartzeko aukera ematen du, garapenean funtsezkoak diren emozio horiek eskatzen duten eta beharrezkoa duten tokia emateko; izan ere, ikasketa urteetan zehar emozioei eskaintzen zaien denbora eta tokia ez da beharrezkoa horien inguruan behintzat oinarrizko informazioa izateko, mundu konplexua baita emozioena. Gainera, gehiengoetan teoriak baliatu eta praktikara eramateko aukerarik ez da ematen eta batak bestea osatzen duen

heinean, biek in lan egitea beharrezkoa da ikaskuntza urteetan benetako ikasketa esanguratsua eta eraginkorra egiteko bidean. Hortaz, ikerketak eskaintzen duenaren harira, egungo irakasleek errealitatea ezagutzeko aukera dute eta irakasle izateko bidean gaudenoi ere aukera desberdinak eskaintzen dizkigu; esaterako, jaso nahi dugun formakuntzaren inguruan, emozioek irakaskuntza estiloan hartuko duten lekuaz eta hurrekin hauen lanketa egitean, besteak beste.

Erreferentziak

237/2015 Dekretua, Haur Hezkuntzako curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkaria, 2016ko urtarrilaren 15ekoa.

Antonio-Agirre, I. (2019). *Inteligencia emocional percibida: Un nuevo instrumento de medida y su contribución a un modelo de ajuste personal y escolar en la adolescencia* (Doktorego tesia). Euskal Herriko Unibertsitatea.

Bisquerra, R. (2008). *Educación emocional y bienestar*. Wolters Kluwer.

Bisquerra, R. (2012). *¿Cómo educar las emociones? La inteligencia emocional en la infancia y la adolescencia*. Hospital Sant Joan de Déu.

Bisquerra, R. (2016). *Educación emocional* (Documento inédito). I Jornadas del Máster en Resolución de Conflictos en el Aula. <https://elephantwise.org/wp-content/uploads/2020/03/Bisquerra-Ed.Socioemocional.pdf>

Bisquerra, R. (2021eko abenduak 30a). *Rafael Bisquerra Educación Emocional*. <https://www.rafaelbisquerra.com/inteligencia-emocional/la-inteligencia-emocional-segun-salovey-y-mayer/>

Bisquerra, R., eta García Navarro, E. (2018). La educación emocional requiere formación del profesorado. *Participación Educativa: Revista del Consejo Escolar del Estado*, 5(8), 15-27.

Bisquerra, R., eta Pérez-Escoda, N. (2007). Las competencias emocionales. *Educación XXI*, 10, 61-82.

Cabello, R., Ruiz-Aranda, D., eta Fernández-Berrocal, P. (2010). Docentes emocionalmente inteligentes. *Revista Electrónica Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 13(1), 41-49.

- Conejero, S., Pascual A., eta Etxeberria, I. (2007). Emozioei begirada psikologikoa. *Uztaro*, 63, 77-89.
- De Andrés, C. (2005). La educación emocional en edades tempranas y el interés de su aplicación en la escuela: Programas de educación emocional, nuevo reto en la formación de los profesores. *Tendencias pedagógicas*, 10, 107-124.
- Díaz, J., eta Flores, E. (2001). La estructura de la emoción humana: Un modelo cromático del sistema afectivo. *Salud Mental*, 24, 20-35.
- García-Navarro, E. (2017). *Formación del profesorado en educación emocional: Diseño, aplicación y evaluación* (Doktorego tesia). Universitat de Barcelona.
- Goleman, D. (1996). *Inteligencia emocional*. Kairós.
- Goleman, D. (2013). *El cerebro y la inteligencia emocional: Nuevos descubrimientos*. Ediciones B.
- Hik Hasi. (2014, Azaroak 1). *Emozioak gorputz hezkuntzan*. <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20141101/emozioak-gorputz-hezkuntzan>
- Levav, M. (2005). Neuropsicología de la emoción: Particularidades en la infancia. *Revista Argentina de Neuropsicología*, 5, 15-24.
- López-Cassá, E. (2005). La educación emocional en la educación infantil. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 19(3), 153-167.
- Moraleda, Á. (2015). *Justificación de la necesidad de una educación emocional. Diseño de un programa de intervención psicopedagógica de educación emocional* (Doktorego tesia). Universidad Complutense de Madrid.
- Salovey, P., eta Mayer, J. (1990). Emotional Intelligence. *Imagination, Cognition and Personality*, 9(3), 185-211.

Sarrionandia, A., eta Garaigordobil, M. (2017). Adimen emozionala garatzeko programa: Aldaketaren ebaluazio subjektiboa, *Uztaro*, 102, 71-84.

Eranskinak

1. Eranskina. 237/2015 Dekretuan Emozioei Lotutako Helburuak.

1. EREMUA. Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua.	<p>Ohartzea norbera pertsona berezia dela eta nor bere buruaren gaineko irudi orekatu eta positiboa osatzea, norberaren nortasuna eraikitzeko.</p>
	<p>Ongizate emozionalari eta fisikoari dagozkion jarrerak lantzea (erritmo biologikoak, mugimenduak, jolasa, arakatzeko-jarduna, elikadura, garbitasuna eta segurtasuna erregulatzea), segurtasun afektiboa finkatu eta eguneroko bizitzako egoerez gozatzeko.</p>
	<p>Ekimenak abiatzea eta norberaren ekintzak planifikatzea eta sekuentziatzea, egiteko errazak edo arazo-egoerak ebazteko eta nor bere buruaren gaineko konfiantza-sentimendua handitzeko; frustrazio txikiak onartzea, sortzen zaizkion zailtasunak gaintzeko jarrera adieraztea eta gainerako pertsonengandik behar den laguntza bilatzea.</p>
2. EREMUA. Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adiezpenaren eremua.	<p>Norberak zer emozio eta sentimendu dituen ezagutzea eta horiez jabetzea, horiek guztiak komunikazio-asmoz adierazteko eta, arian-arian, gainerako pertsonenak aintzat hartzeko.</p>
	<p>Hizkuntza askotarikoen komunikazio-tresnak eskuratzeko bidea egitea eta tresna horiez gozatea, norberaren egoera pertsonal, fisiko eta sozialeko beharrianak, sentimenduak eta bizipenak adierazi eta azaltzeko.</p>
	<p>Ahozko hizkuntza arian-arian erabiltzea eta balioestea norberaren portaera eta elkarbizitza erregulatzeko.</p>

2. Eranskina. 237/2015 Dekretuan Emozioei Lotutako Edukiak.

<p>1. ETA EREMUAK. Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua eta nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adieazpenaren eremua.</p>	<p>2. Pertsonen arteko harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).</p> <hr/> <p>Gatazkak kudeatzea.</p> <hr/> <p>Gorputza eta emozioak autoerregulatzea.</p>
<p>1. EREMUA. Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua.</p>	<p>Arian-arian, norberaren gorputza eta nortasuna eraikitzea eta onartzea.</p> <hr/> <p>Norberaren eta gainerako pertsonen sentimenduak, emozioak, oinarrizko beharrianak eta interesak adieraztea, identifikatzea eta erregulatzen hastea. Laguntza onartzea eta, arian-arian, hura bilatzea.</p> <hr/> <p>Norberaren segurtasun afektiboa ziurtatzeko estrategiak erabiltzea (erreferentziazko pertsona helduaren begirada bilatzea, kontaktu afektiboa eskatzea, etab.)</p> <hr/> <p>Lotura afektiboak bilatu eta ezartzea adineko pertsonekin eta eskolako haurrekin. Enpatia-jarrerak izaten hastea.</p> <hr/> <p>Afektu eta enpatiako harremanak sortzeko jarrera positiboa izatea eta talde-lanetan laguntzea.</p> <hr/> <p>Haurrak parte hartzen duen gizarte taldeetan ezartzen diren harreman afektiboen garrantzia balioestea.</p>
<p>2. EREMUA. Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adieazpenaren eremua.</p>	<p>Ahozko hizkuntza ulertu eta adierazteko urratsak ematea arian-arian, beharrianak eta emozioak komunikatzeko, izandako bizipenak gogoratzeko eta norberaren portaera erregulatzeko.</p> <hr/> <p>Norberaren gorputzak dituen komunikazio-ahalmenak arakatzea, deskubritzea eta erabiltzea, adierazpen-baliabide izateko: mugimendua, negarra, irribarrea, oihua, tonua, adierazkortasuna, keinua.</p> <hr/> <p>Informazio, beharrian, emozio eta gogoak hitzen bidez adierazi eta azaltzea eguneroko bizitzako egoeretan.</p> <hr/> <p>Arte-adierazpenak baliatuz adieraztea eta komunikatzea gertakariak, sentimenduak, emozioak, bizipenak eta ametsak.</p>

3. Eranskina. *Ikerketan Parte Hartu Duten Irakasleei Bidalitako Galdetegia Hutsik.*

Sexua:

- Emakumezkoa.
- Gizonezkoa.
- Ez-binarioa.

Adina:

Eskola mota:

- Eskola publikoa.
- Eskola pribatua.
- Kristau Eskola.
- Ikastolen Elkarte.
- Beste batzuk:

Zenbat urte daramatzazu irakaskuntzan?

Haur Hezkuntzako zein ziklotan zara irakaslea?

- 1. zikloan
- 2. zikloan
- Beste batzuk:

Eskolako metodologiak emozioen lanketa bermatzen du.

- 1
- 2
- 3
- 4
- 5

Eskolan egiten diren proiektu desberdinek emozioak kontuan hartzen dituzte.

- 1
- 2
- 3
- 4
- 5

Eskolako espazioek (ohiko gela batez ere) haurra seguru sentiarazten dute.

- 1
- 2
- 3
- 4
- 5

Gelako egunerokotasunean emozioei garrantzia ematen diet.

- 1
- 2
- 3
- 4
- 5

Haurra bere osotasunean ulertzeko, bizi dituen emozioei erreparatzen diet.

- 1
- 2
- 3
- 4
- 5

Konpetentzia emozionalak ezagutzen ditut, haurrek horiek eskura ditzaten.

- 1
- 2
- 3
- 4
- 5

Emozioen lanketa ahalbidetzen duten baliabideak eta laguntza eskaintzen ditut.

- 1
- 2
- 3
- 4
- 5

Nola lantzen dituzu emozioak gela barruan?

- Esku-hartze edo ariketa espezifiko bidez.
- Zeharka.

Ez dut esku-hartzerik egiten.

Beste batzuk:

Zaila da emozioekin lan egitea...

Hauek interpretatzea eta ulertzea kostatzen delako.

Material edota baliabiderik ez dagoelako.

Ez dut zailtasunik aurkitzen emozioekin lan egiterako orduan.

Beste batzuk:

Noizbait emozioen inguruko formakuntza jaso izan dut.

Bai.

Ez.

Aurreko galderan baiezkoa erantzun baduzu, non jaso duzu formakuntza? Epe tarte mugatuan jasotakoa izan da edo etengabeko prozesua da? Baliagarria izan da gelako egunerokotasunari erreparatuta edo autoikaskuntza eta haurrekin kontaktuan egotea da baliagarriagoa?

Eskolako giroak haurren emozioetan eragina du.

1

2

3

4

5

Familiek garrantzia ematen diete emozioei eta horiek lantzen dituzte.

1

2

3

4

5

Emozioen inguruko informazio gehigarriak, esperientziarik, erabiltzen duzun teknikarik... gehitu nahi baduzu egin ezazu hemen.

4. Eranskina. Jasotako Datuen Azterketa Konparazio Taulan Adierazita.

	NIRE USTEAK (ondorioak)	OROKORREAN	SEXUA		ZIKLOA		MOTA		ESPERIENTZIA	
			Emakumea	Gizona	1. zikloa	2. zikloa	Publikoa	Ikastolen E.	-5 edo 5	+5
1	<p>Eraitza koherentea k baliabideen inguruan, erantzunak antzekoak dira hauek konparatzen baditugu. Hala ere emakumeek proiektuetan emozioen falta azpimarratzen duten moduan, gizona eta metodologi</p>	<p>Galdetgia erantzundako irakasle guztiek oro har emozioen lanketa bermatzen dela erantzun dute, metodologiak, lantzen dituzten proiektu desberdinek eta eskolako espazioek hau ahalbidetzen dutelarik, azken honetan fokua jarritz, gutxiago lantzen baitira.</p>	<p>Oro har emakumeen erantzunak baliabideek emozioak lantzen dituztelaren aldekoak izan dira.</p>	<p>Gizonezkoek orokorrean oso eratzun antzekoak izan dituzte, baliabideek emozioen lanketa bermatzen dutela azpimarratuz.</p>	<p>Proiektuek ez diote behar bezain beste garrantzi ematen emozioei.</p>				<p>Bost urte baino gutxiago irakaskuntza damaratzaten parte-hartzaile estatik, proiektuetan emozioek guztiz ez direla lantzen azpimarratu dute.</p>	
					<p>Gizon bakarra eta erantzun positiboak.</p>	<p>Bigarren zikloan lan egiten dutenek oro har uste dute eskolako proiektuek ez dituztela emozioak behar bezain beste lantzen.</p>	<p>Metodologia eta proiektuek emozioen lanketa erdizka egiten dute (erantzun bakarra).</p>			<p>Proiektuek emozioen lanketa ez dute guztiz bermatzen.</p>

	proiektueta n emozioen lanketaren falta ikusten dute.									
	Konpetentzia emozionalak arlorik ezezagunen dira emakume zein gizonen artean zikloa desberdinetan. Hala ere eskola publikoetan hauen ezagupen handiagoa dute eta esperientzia gutxi dutenek, esperientzia asko dutenek	Gutziz garrantzai eman $\frac{2}{3}$, $\frac{1}{3}$ gehienetan, egunerokotasunean emozioei erreparatu. Aldiz emaitzek adierazten dute konpetentzia emozionalen ezagupena, nahiko zabaldua dagoela baino ez dituzte menperatzen. Baliabideak badituzte ere, guztiek ez dute modu horretan lan egiten.	Oro har emakumeen irakaskuntza estiloan emozioek garrantzia hartzen dute, nahiz eta konpetentzia emozionalak eta hauek lantzeko baliabideak arlo eskasena diren.	Emozioei garrantzia eman baina arlorik ezezagunena konpetentzia emozionalak dira.	Emozioak irakaskuntza estiloaren parte dira, hala ere konpetentzia emozionalak ezagutzen ez dituztenak baliabide eskasagoak dituzte.	Emozioak irakaskuntza estiloaren parte dira, hala ere konpetentzia emozionalak ezagutzen ez dituztenak baliabide eskasagoak dituzte.	Ikastolen elkartarekin konparatuta, emozioak irakaskuntza estiloaren parte dira osotasunean: garrantzia ematen diete, umea ulertzeko hauei erreparatzen diete, konpetentzia emozionalak ezagutzen dituzte eta baliabideak eta laguntza eskaintzen dituzte.	Emozioak irakaskuntza estiloaren parte dira, hala ere konpetentzia emozionalak ezagutzen ez dituztenak baliabide eskasagoak dituzte.		Konpetentzia emozionalen ezagupen eskasagoa dutenek, baliabide gutxiago dituzte.

2	baino gehiago ezagutzen dituzte.					Gizonen erdiak ez dituzte konpetentzia emozionalak ezagutzen eta ez dituzte egunerokotasunean emozioak kudeatzeko baliabideak eskaintzen.	Orokorrean bai, baina baliabide falta.	Orokorrean emozioekin lan egiten dute, baina emakumeekin bezala konpetentzia emozionalen ezagupenean eta hauekin lan egiteko baliabideetan daude murriztuz.		Konpetentzia emozionalen ezagupena gutxi eta ondorioz baliabide gutxiago.
3	Lehenengo zikloko emakumeak zeharka eta bigarren zikloan ordea espezifikoa goa da.	Parte-hartzaile gehienek ariketa espezifikoak landuz eta zeharka lantzen dituzte emozioak baina era berean zailtasuna emozioak interpretatzen eta hauek ulertzen aurkitzen dute, material edota baliabiderik ez dutelako. $\frac{1}{3}$ azpimarratzen dute ez dutela zailtasunik aurkitzen hauekin lan egiterako orduan.	Emakumeen erdiak esku-hartze edota ariketa espezifikoak egiten ditu emozioak lantzeko, $\frac{1}{3}$ zeharka lan egiten duelarik. + Erantzun propioak.	Gizonezkoen erdiak emozioak zeharka lantzen ditu eta $\frac{1}{3}$ + Erantzun propioak.	Zeharka eta ariketa espezifikoan bidez. Zaila egiten zaie hauek interpretatzea eta ulertzea, nahiz eta kopuru txiki batek adierazi duen ez duela zailtasunik aurkitzen.	Gehienek esku-hartze espezifikoak erabiltzen dituzte, egunerokotasuneko egoera desberdinez baliatuz. $\frac{1}{2}$ interpretatzea kostatzen zaie, nahiz eta $\frac{1}{3}$ adierazi ez duen ez duela zailtasunik	Gehienek zeharka baina espezifikoak eta egunerokotasuneko egoerak kontuan hartzen dira. Erdiak ez du zailtasunik aurkitzen eta interpretatzea eta ulertzea	Erdiak baino gehiago espezifikoak . Besteek zeharka. $\frac{1}{2}$ interpretatzea zaila da, kopuru txiki batek zailtasunik ez du aurkitzen eta besteak material eta baliabide	Zeharka + espezifikoa, egunerokotasuna kontuan hartu. Erdiak interpretatzea kostatzen zaio, beste erdiak zailtasunik ez du aurkitzen.	Erdiak baino gehiago espezifikoak, $\frac{1}{3}$ zeharka eta egunrokotasuna ere kontuan hartu. Erdiak zaila interpretatzea hauek ulertzea

					aurkitzen. Kopuru txiki batek adierazi du material eta baliabide falta.	kostatu.	falta adierazi.		kostatzen delako, $\frac{1}{3}$ ez du zailtasunik aurkitzen.	
					Zeharka landu. Zailtasunak material eta baliabide faltan.	Erdiak zeharka landu eta beste erdiak programa espezifikoak. Zailtasuna hauek interpretatzea eta ulertzea kostatzen delako.	Zeharka landu. Zailtasunak material eta baliabide falta.	Erdiak zeharka, $\frac{1}{3}$ programa espezifikoak. Zailtasunak, hauek interpretatzean. Erantzun pertsonalak, hizkuntza ez dute garatua, lanketa pertsonala egin behar da edozein momentuan azaleratzen direlako.	Zeharka landu. Zailtasunak material eta baliabide faltan.	Zeharka landu, edo programa espezifiko bidez. Zailtasunak, hauek interpretatzen. Erantzun pertsonalak, hizkuntza ez dute garatua, lanketa pertsonala egin behar da edozein momentuan azaleratzen direlako.

4		<p>Inkesta erantzun duten parte-hartzaileen erdiak baino gehiagok formakuntza jaso dute, epe tarte mugatuan gehienak, nahiz eta ikastaro mota desberdinak jaso dituzten eta entidade desberdinetan.</p>	<p>Emakumeen erdiak baino gehiagok irakaskuntza urteetan zehar emozioen inguruko formakuntza jaso du.</p>	<p>Gizonezkoen erdiak jaso du noizbait emozioen inguruko formakuntza.</p>	<p>Lehenengo zikloko emakumeen gehiengoak ez du emozioen inguruko formakuntzarik jaso, hala ere jaso dutenek egunerokotasuna oso baliagarria dela uste dute.</p>	<p>Bigarren zikloko emakumeen artean ia %80ak jaso du formakuntza, epe tarte mugatuan eta etengabeko prozesua izanez: Kuku Programa, Berritzegune, Konfiantzaren Pedagogia, Prest Garatuko, Master Pribatuak, Ikastaroak, norberaren kabuz...</p>	<p>Eskola publikoan lan egiten duten emakumeen erdiak baino gehiagok jaso du formakuntza : Berritzegune, Prest Garatuko, ikastaroak eta psikomotrizitak. Gehiengoek adierazten dute egunerokotasunean oso baliagarriak izan zaizkiela.</p>	<p>Ikastolen Elkarteetan lan egiten duten emakumeen artean, gehiengoak formakuntza jaso du, erdiak Kuku Programarekin egin du lan eta besteek ikastaroak eta ikasketa pribatuak zein norberaren kabuzkoak izan dira.</p>	<p>5 emakumetatik, bakarrak jaso du formakuntza eta modu pribatuan izan da.</p>	<p>Ia %80k jaso du formakuntza: Kuku programa da aipatuena, Berritzegune, Prest Garatuko eta ikastaroak.</p>
						<p>Bigarren zikloko gizonezkoen erdiak jaso du formakuntza, ikastaro zein</p>	<p>Psikomotrizitak ikastaroak, gizon bakarra.</p>	<p>Gizonen erdiak jaso du formakuntza, Ikastolen Elkarteak</p>		<p>%60 jaso du, ikastolen elkarteak da aipatuena,</p>

						programa konkretuekin lan eginez.		duen programa batekin.		psikomotrizista erreibai.
5		Parte hartzaile guztien erantzunetik argi uzten dute eskolako giroak haurren emozioetan eragin zuzena duela, familiaren inplikazioa ordea emozioekiko eskasagoa da kasu batzuetan.	Emakumeen usteetan, eskolako giroak zuzeneko eragina du haurren emozioetan. Familiaen inguruan ordea, erdiak uste du familiek garrantzia ematen dietela emozioei eta hauek lantzen dituztela eta beste erdiak ordea, inplikazio falta hori azpimarratzen du.	Emakumezkoetan bezala, gizonzkoen erantzunak berdintsuak izan dira; hau da, eskolako giroak zuzeneko eragina du haurren emozioetan eta familien inguruan erdiak inplikazio falta somatzen du eta beste erdiak uste du hauek etxean emozioak lantzen dituztela.	Lehenengo zikloari erreparaturik, giroak zuzeneko eragina duela ondoriozta dezakegu eta familiek emozioen inguruko lanketa eskasa egiten dutela.	Gizonzkoen ordea uste dute eskolako giroak zuzeneko eragina duela eta familien inplikazioa badagoela.	Eskolako giroak eragin zuzena du eta erdiak baino gehiago erantzun dute familiek eremozioak lantzen dituztela.	Ikastolako giroak zuzeneko eragina du haurren eta familien lanketari dagokionez, erdiak baino gehiago lanketa gehiago eskatzen du familia esparruan, eskasa baita.	Eskolako giroak eragin zuzena du, familien lanketarik ez dago.	Eskolako giroak eragin zuzena, erdiak baino gehiago familiek hauekin lan egiten dutela diote, beste erdiak ordea ez du adostasun erakusten.
					Bigarren zikloan ere eskolako giroak eragin zuzena du haurren emozioetan	Gizonzkoen erantzunak bigarren zikloan: eskolako giroak eragin zuzena,	Eskolako giroak eragina haurren familien lanketa erdipurdi.	Eskolako giroak eragin zuzena du haurren eta familien lanketa	Eskolako giroak zuzeneko eragina eta familien inplikazioa badago.	Eskolako giroak eragin zuzena, familien inplikazioa ez da

					eta familien inplikazioa areagotu egiten da lehenengo zikloarekin konparatzen badugu.	familien lanketa emozioekin falta da.		egiten dute.		guztizkoa.
--	--	--	--	--	---	---------------------------------------	--	--------------	--	------------

Emozioen inguruko informazio gehigarria, esperientziak eta erabilitako teknikak.

EMAKUMEAK

- 45 urte, 2.zikloa, Ikastolen Elkarte, 20 esperientzia: Kuku programa eta gelan espazio lasaiak sortu (lasai txokoa).
- 48 urte, 2.zikloa, Eskola publikoa, 20 esperientzia: Familiekin enpatizatu eta hartu-emana izatea.
- 41 urte, 2.zikloa, Eskola publikoa, 20 esperientzia: Psikomotrizitate saioak, sistemikoa, entzute enpatikoa eta ez epaitua, komunikazio ez bortitza.
- 56 urte, 1.zikloa, Eskola Publikoa, 34 esperientzia: Umearekin emozioei buruz hitz egin, sentitzen duenari izena jartzea. Bere altueran jarri, begietara begiratu... guzti hau maitasunean murgilduta.

GIZONAK

- 60, Ikastolen Elkarte, 31 esperientzia: Kuku programa
- 36. 2.zikloa, Ikastolen Elkarte, 11 esperientzia: Kuku programa.
- 46, 2.zikloa, Ikastolen Elkarte, 14 esperientzia: “Pentacidad” nirekin egoteko txokoa eta maitasungrama, “Comunicación no violenta”.